

euskaraz gazte

literatur
lehiaketa

20
21

SARRIAK

IPUINAK

- 1. SARIA:** Eromena
Libe Larrarte
 - 2. SARIA:** Txikitako lagunak
Iñaki Iturain
 - 3. SARIA:** Leihotik
Ane Etxabe Usandizaga
- Accesita:** Basoaren alaba
Josu Galdos
- Accesita:** Azkena
Garazi Urretabizkaia

OLERKIAK/BERTSOAK

- 1. SARIA:** Atxakiak
Garazi Urretabizkaia
 - 2. SARIA:** Klimaren kilimak
Mikel Iruretagoiena
 - 3. SARIA:** Ilkus(i)ezinak
Ainhoa Mujika
- Accesita:** Bizitza honek ez du askorik balio
Josu Galdos
- Accesita:** Gainazalean
Maxe Zinkunegi

Eromena

Libe Larrarte

Kinesologoareen kontsultatik atera eta farmaziara joan nintzen zuzenean. Kinesologoak belar dendan erosteko olio eta estraktu batzuk errezetatu zizkidan, baina aspaldi utzi nion gauza horiek hartzeari: ez dute funtzionatzen eta garestiegiak dira. Poto oso txikietan etortzen dira, gainera. Farmazian 55 xentimotan antsiolitiko batzuk erosi nituen, medikuaren errezetarekin.

Anek gomendatuta hasi nintzen kinesologora joaten. Psikologora joatea bezala zen, baina askoz merkeagoa eta masaje bat ematen zidan saio bakoitzaren amaieran. Nire aurreneko egunean, bere aurrean zutiarazi eta, besoak bakarrik ukituz, gorputzean zenbateko estresa nuen neurtu zidan: %97.

Atera nintzenean, Aneri idatzi nion.

Ni: %97ko estresa dakatela esan dit kinesologak

Ane: (5 emoji barrez) Nola kalkulatuizu hori?

Ni: Besok ikututa bakarrik.

Ane: Makina!

Mobila poltsan gorde eta tren geltokira abiatu nintzen oinez. Mesedez, ezagunik ez tokatzea. Ez zitzaidan tokatu. Trenean, berriz mobila eta aurikularrak atera nituen. Aurikularren korapiloa askatzeko bi geltoki behar izan nituen eta, gero, Spotifyen «danetik» *playlist*-a aukeratu eta modu aleatorioan jarri nuen. Tokatu zen lehenengo kanta pasa nuen, bigarrena ere bai, hirugarrena pixka bat laga nuen. Uste nuen osoa entzungo nuela, baina ez, pasa egin nuen. Nire geltokira iritsi nintzenean, aurikularrak kendu nituen eta, mobilarekin batera, poltsan sartu nituen.

Etxera iristeko, buelta osoa eman nuen herriko atzeko partetik, beti bezala. Mesedez, inor ez ikustea. Ez nuen ikusi.

Etxeko atea kontuz-kontuz ireki nuen. Aspal-dian, Marijek alde egiteko gogo handia zuen.

Nire oinen artetik eseak egiten jarraitu zidan miauka sukalderaino. Marije ez zapaltzeko abilezia handia hartzen ari nintzen.

Aulkian eseri eta pelukeriara deitu nuen. Ordura arte ez nuen ilea moztu nahi, Markelek ez zidalako inoiz horren luzea ikusi. Ez mozteak bera ikusteko esperantza ematen zidan. Pare bat tonu itxoin nituen. Bitartean, mahai izkinan geratutako marroi koloreko mantxa bat pasa nuen behatzarekin eta begira geratu nintzaion. Sudurrera gerturatu nuen.

—Noizko nahiko zenuke ordua? —galdetu zidan pelukerak.

Tahinia edo Marijeren kaka hondarra izan zitekeen. Arriskatzea erabaki nuen. Ahora eraman nuen.

—Gaurko, lekuik baldin bado.

Mingainean desegin zen. Kantitate txikiegia zen bereizteko.

—Hamabitan ondo?

—Bale.

Gillen bila etorri zitzaidan lanera. Kotxera sartzetakoan bertan konturatu nintzen ez zela dutxatu. Harritu egin ninduen; aurreneko aldia zen. Konfiantza gehiegi hartzen ari zen seinale. Ez zitzaidan detailea gustatu. Normalean, gorputzeko gel, kolonia fuerte eta tabakoaren nahasketak txar baten usaina izaten zuen, baina, egun hartan, besape eta siesta usaina zuen. Kasu egiteko ahoa ireki zuenean, hats nazkagarria antzeman nion.

—Oso guapa zaude ile motzakina.

—Ya, bakit.

—Ondo emateizu, ume aurpegiya iteizu.

Perbertidua. Pakete bat pasa zidan, orduan; erregalu bat ematen zuen.

—Zer da?

—Aaaaaa.... Iriki!

Izaroren disko bat zen.

—Zer da hau?

—Aurrekon radiyon aitugenun ta gustatze zitzaizula esantzenun!

—Anari zan.

Kotxeko leihotik kanpora begiratu nuen. Iluntzen ari zuen eta farolen argiek eta kotxee-takoek laranja kolorea ematen zioten kaleari. Jendea begiratu nuen. Batzuk erosketak egiten ari ziren, besteak paseatzen, beste batzuk terrazan zerbait hartzen. Gehienek triste aurpegia zuten. «Egon behar du pozik bizi den norbait» pentsatu nuen.

Lotarakoan hortzak garbitu zituenean ere oraindik kiratsa zuen ahoan Gillenek. Almoa-darekin itotzen nuela imajinatu nuen, lo hartzen zuen bitartean.

Jada ez ginen oheratzen; pentsatze hutsak gonbitolarria ematen zidan. Gillenek amorru irrazionala sortzen zidan, biolentoa. Edozein kantarekin, ezagutu edo ez, txistua jotzen zuen edo baju kantatu. Biak gaizki egiten zituen, doinu berriak asmatuz. Bere buruari buruz ondoegi hitz egiten zuen eta «asko maite naiz» bezalakoak esaten zituen denbora guztian, psikopata batek bezala. Serie edo pelikularen bat ikusten genuenean, nerbioso jartzen zen pantailari begira eta aurpegia bi eskuekin tapatzen zuen. Lumière anaien dokumentala lehenengo aldiz zinean ikusi zutenak bezalakoak zen. Aktoreen jokabideekin minduarena egiten zuen eta galderak ere egiten zizkidan, «Zuk ingo zenuke beñe holakoik?» eta antzekoak. «Nik ezingo nuke» esaten zuen, ni inpresionatu nahian bezala. «Ui, ez nekien zuzen-dariaren komentarioak aktibatuta nituenik» esaten nion, isiltzeko. «Ze?» Muturreko bat ez emateko ahalegin handiak egin behar izaten nituen askotan.

Hurrengo goizean esnatu eta aurrean nuen eguna mentalki errepasatzen hasi nintzen, ohean etzanda. Urteak eta bizitza azkar doaz, baina egun batzuk luzeegiak dira. Horrelako zerbait esan zuen behin Txirritak edo beste bertsoariaren batek, edo, bestela, La Bien Querida-ren letra bat zen. Ez nengoen seguru. Aspalditik, antiklimax

konstante batean bizi nintzenaren sentsazioa nuen. Klimaxa pasa banu bezala. Edo inoiz iritsi izan ez banintz bezala; ezin nuen seguru egon, ezta ere. Nire teoria zen bizitzaren lehenengo erdian zortea izan nuela, orokorrean, eta, hortik aurrera, ez zitzaidalda zorte on gehiago tokatzen.

Eta pentsatu nuen hori ez zela bizitzea, irautea baizik. Horrek Berri Txarrak-en abestia gogorarazi zidan. Ilunpean eskua mesanotxera luzatu eta mobila hartu nuen. Spotifyen «berri txarrak bizi ala irau» idatzi nuen eta abestiak «biziraun» izena zuela jakin nuen. Zentzua zuen. Motxagoa zen. Bolumena igo nuen eta, lehenengo aldiz entzungo banu bezala, letrari atentzio handia jarri nion. Orduan, Marije etorri zitzaidan gainera, salto batez, «Ze jaleo da hau?» esanez bezala. Maite-maite egin nion. «Arrazoi duzu» esan nahi nuen. Kanta kendu eta nola garbitzen zen begira geratu nintzen, hipnotizatuta. Ez nekien zenbat denbora pasa nuen horrela. Asko iruditu zitzaidan. Ez nekien meditatzen, baina Marijeri begira egoteak horrelako zerbait izan behar zuela imajinatzen nuen. Ohetik altxa nintzen.

Sukaldean Euskadi Irratia jarri nuen. Marijeri pentsua eman nion eta ura aldatu. Irratian goize-roko anuntzioa entzun nuen. Kirolari batek esaten zuen: «Gauza bat argi daukat, azkenean oihartzuna bezalakoak da bizitza, emandakoa itzultzen dizu. Laboral kutxa, bada beste modu bat».

Pastilla berriak probatu nituen. Arroza eta txuri koloreko kapsulak ziren, oso politak. «Neskentzako egingo dituzte apropos arrosak?» pentsatu nuen. Gosaltzen ari nintzen bitartean, Marijek hiru kaka luzanga egin eta krixton kiratsa laga zuen etxe guztian. Mahaitik begiratu nion. «Ze txikia den» pentsatu nuen. «Nire beharra du», hori ere pentsatu nuen. Nerbioso jartzen hasi nintzen; maleziagabeko bi pentsamendu horiek katean beste hainbat pentsamendu negatibo ekartzeko arrisku erreala ikusi nuen. «Ze munstro klase naiz katu txiki bat betirako etxean sekuestratzeko?» Mobilean nituen Whatsappeko mezuak begiratu nituen orduan, distraitze aldera. Ez nituen erantzun. Mahaitik altxa eta Marijeri hondarrezko kaxara gerturatu nintzen. Aranzadiko arkeologo bat sentitu nintzen lurrean

makurtuta bere kakak ateratzen. Pixka bat lasaitu nintzen; pastillak efektua egiten ari ote ziren pentsatu nuen.

Hortzak garbitzen ari nintzela, jantzita neraman arropari begiratu nion ispiluan. Markelek ez zizkidan bakero eta kamiseta horiek inoiz ikusi. Askotan pentsatzen nituen horrelakoak: arropa berria zabaldu edo jasotzen nuenean, adibidez. Horrela neurtzen nuen bera ikusi gabe neraman denbora. Bat-batean Markel hilko balitz, kotxe istripu batean edo, bere hiletara joan beharko nuke? Horrelako gauzak ere etortzen zitzaizkidan burura, denbora guztian.

Treanean, bi jonki eseri zitzaizkidan parean eta bietako bat Rodriguezen *I Wonder* kantatzen hasi zen. Begiak altxatu nituen irakurtzeko itxura egiten ari nintzen liburutik eta kantatzen ari zen gizonari begiratu nion. Markel izan zitekeen handitan. Garai horretan, mundu guztia izan zitekeen Markel niretzat. «¿No conoces la canción?» galdetu zion Markelen antza zuenak besteari. Hark buruarekin ezetz egin zuen: «Pero me suena mucho, tío». Kantatzen jarraitu zuen gizonak, niri begira. Ume bat bezala harrotzen ari zela nabaritu nuen eta liburua irakurtzeko itxura egin nuen berriro. Aspaldian ezin nuen ezer irakurri treanean eta, urduri jartzen hasten nintzenean, inguruko jendearen begiradengandik ezkutatuzko erabiltzen nuen liburua.

Lanean ere ez nuen gauza handirik egiten. Nire mahaia txukun mantentzen saiatzen nintzen. Laneko telefonoa ordenagailu ondoan kargatzen uzten nuen; paper tontorrek mahaiaren alde batean antolatuta nituen, tontor bakoitza post-it batekin; bi mahaiko egutegi nituen, bata bestearen aldamenean, bat hilabetekoa, bestea urte osokoa; eta kolore askotako boligrafoekin notatxoak idazten nituen borobildutako datetan. Lapitzak beti zorrozuta edukitzen nituen. Nagusiaren bulegora joan behar izaten nuenean, aulkian eserita, nire egitekoak —horrela esaten zuen— apuntatzeko eskatzen zidan eta nik, bere aurrean tente, buruarekin baietz egiten nion esaten zidan guztiari, eta koadernoan burura aurrena etortzen zitzaidan kantaren letra idazten nuen. Kontzentratu aurpegia jarri behar nuen derrigor, ze asko kostatzen zitzaidan norbait hitz

egiten ari zitzaidanean kanten letrak gogoratzea. Behin nire mahaian bueltan, Markelen izena sartzan nuen Googlen eta haren argazkiak begiratu, hari buruzko elkarrizketak irakurri eta Youtuben haren bideoak ikusten nituen, bolumenta kenduta. Serio aurpegia jartzen nuen nahita eta begiak erdi-ixten nituen pantailari begira. Eskuineko eskua sagan izaten nuen eta ezkerarekin kokotsa ukitzen nuen, pentsakor. Noizbehinka hasperen batzukegiteaz gogoratzen nintzen, estresatuta banengo bezala. Inork ez zidan molestatzen.

Gillenekin geratu baino lehenago, hiru kafe hartzen nituen bata bestearen atzetik eta, gero, badaezpada ere, takikardia handia ez izateko, pare bat antsiolitiko. Beti errepikatu behar nuen errutina hori, nire barruan emozio minimo bat sortzeko. Gehienetan ez zuen funtzionatzen.

Arratsalde hartan Gillenek hiru aldiz deitu zidan. Ez nion hartu. Idatzi egin zidan orduan. Whatsappeko perfileko argazkian, txikitan, bodaren batean edo, bere amonarekin agertzen zen argazkia zuen jarrita. Gillenen mezu bat jasotzen nuen bakoitzean, bere amona ikusten nuen.

La zeko pinguino enperadoreei buruzko dokumental bat ikusten ari nintzen. Ikusita neukan, baina asko gustatzen zitzaidan. Taldeko pinguino txikia galdu egiten zen. Beste pinguino amek baztertu egiten zuten eta umerik ez zutenek bahitu egin nahi zuten. Ia hil egiten zuten txikia mokoka. Azkenean, ama aurkitzen zuen, baina, orduan, aita galtzen zen foka batengandik ihesi eta ekaitzak harrapatzen zuen gero. Azkenean, familia osoa elkartzen zen. Anerekin ikusi nuen dokumentala aurreneko aldiz, batera bizi ginean. «Bakizu egitan hoyek ez tiala bere ama ta aita, no? Nahita iteue, pena emateko». Inoiz ez nuen posibilitate horretan pentsatu. Nik dena sinesten nuen, baina Ane oso azkarra zen eta horrelako gauzak zekizkien. Pinguino taldearen barruan, denak besarkatuta zeudela, 37°C egiten zituen, kanpoan -20°C. «Bakarrik ezin izango zuten bizirik iraun» esaten zuen dokumentaleko

ahotsak.

Dokumentala bukatu zenean, mobilari begiratu nion berriz. Gillenen amonaren aurpegia ikusi nuen. Sei mezu berri nituen. Puntuazio ikur eta emoji gehiegi erabiltzen zituen eta gaizki idazten zuen. Begiko mina ematen zidan. Bere mezuekin gogorarazi nahi zidan afaltzeko geratuta ginela.

Ni: ei

Gillen: holi!!!!!!! zemouzzzzz???

ni: nekatuta

Gillen: zertan aizea??)?

ni: gauzak iten

Gillen: ondo!! !ni goizen lanea junber izandet azkenen.....!!

(...)

Gillen: ordun ze?? noiz pasako naiz zure bila???

«Iñoiz ez» idatzi nuen. Gero borratu egin nuen eta kurtsorea pantailan nola agertzen eta desagertzen zen begira geratu nintzen. «Nekatuta nao» idatzi nuen berriz, eta bidali egin nuen. Bost emoji triste jaso nituen, azkenengo biak negarrez. Ez nion erantzun. Mobila apartatu nuen eta mantarekin bildu nintzen. Mina sentitzeraino besarkatu nuen nire burua eta, gero, sofatik altxatu nintzen. Frigorifikoa ireki eta txartutako tomate pota bat, bi azenario bigun, Marijeren pateaa eta Loctite bat nituen. Mobila hartu eta Gillenen txata bilatu nuen Whatsappean. Azkenean berarekin afaltzera joango nintzela idatzi nion. Sei emoji irribarretsu, lau bihotz eta konfetiak dituen eta turuta jotzen ari den beste hiru emoji jaso nituen, tartekatuta.

Jatetxea gainezka zegoen eta jendeak altuegi hitz egiten zuen. Beren aurpegiak bereziki desatseginak ziren eta egiten zituzten buila eta barreek belarrian tinitusa eragiten zidaten. Kafeetan pentsatu nuen. Ez zen ideia ona izan. Komunera joan eta beste bi antsiolitiko hartu nituen.

—Ezin det hemen jan —esan nion Gilleni.

—Ze?

—Krixton eskandalua do, ezin det hemen jan.

—Baño asko kostatu zait tokiya lortzia! Aspaldi inun reserba.

Pena pixka bat eman zidan eta mahai batera zihoan kamarero bat gelditu nuen. Hiru plater

zeramatzan. Bi esku batean, bat bestean.

—Barkatu, kanpon nahiko genuke jan.

Mutilak kopeta zimurtu zuen. Euria ari zuen eta hotz egiten zuen. Eskuarekin keinu bat egin nion adierazten zuena: «Lasai, badakit zer esaten ari naizen, zerbitzatu aurrena eta bueltan hitz egingo dugu». Segituan bueltatu zen eta kontsultatu egin behar zuela esan zigun. Sukaldera sartzen ikusi genuen.

Jatetxearen erdian geratu ginen zain. Usain txarra nabaritu nuen. Ni nintzen. Ez nintzen dutxatu bi egunetan. Gillenek lotsatuta begiratzen zuen ingurura eta burua makurtzen zuen. Erridikulu zentzu handiegia zuen. Azkenean, kamareroa sukaldetik atera zen eta terrazako mahai bat eta bi aulki lehortu zituen gogo txarrez. Toldoa ireki zuen gero. Zaparrada ari zuen. Gillenek ez bazion hamar aldiz eskerrik asko esan, ez zion behin ere esan. Mutilak menuak luzatu zizkigun eta barrura sartu zen. Isiltasunean begiratu genituen.

—Oso majua izan da kanpon jaten uztiakin, no?

Ez entzunarena egin nuen.

—Jode, ze pinta ona dakan danak, no? Fijatu altzea leno kamareruak zemakixkin plateretan?

Buruarekin ezetz egin nion.

—Gose asko?

Sorbaldak altxatu eta burua alde batera okertu nuen, «Bueno» esanez bezala.

Janari gehiegi eskatu genuen. Lehen platerarekin bete nintzen eta ez nuen gehiago jan. Gillenek isildu ere egin gabe hitz egin zidan bere lanari buruz eta, batez ere, bere nagusiaz kexatu zen. Laster lana utziko zuela agindu zidan, niri inportako balit bezala. 16 urtetatik ari zela zerri horrentzat lanean eta nik zer dakit zer gehiago. Ez nion kasurik egin. Begietara begiratu nion hasieran eta, iridologo bat bezala, bere irisa zeharkatu nuen eta, nire aurretik, aspaldiko diapositiba batzuk pasatzen ikusi nituen. Gehienak Markelenak ziren eta nahiko melankolikoak ziren. Beste asko sexualak ziren. Orduan, Aneren irudiak sartu zitzaizkidan kolpetik eta aurrean nuen arraina disekezionatzen hasi nintzen, kutxi-loarekin pusketa txiki eta itsusiak eginez. Beren gorputzak zirela imajinatu nuen. Gero beste

botila ardo bat eskatu nuen. Behin mozkortuta, errealitatea argiago ikusi nuen.

Gogorrena, igual, Markelek inoiz ez ninduela maite izan onartzea zen. Hasieratik, beti nahiago izan zuen Ane.

Goiz batean, nire izen-abizenak idatzita zituen sobre bat aurkitu nuen laneko mahai gainean. Nagusiaren letra ezagutu nuen. Ingurura begiratu nuen, norbaitek orduantxe laga izan balu bezala zen, baina ez zegoen inor bulegoan. Kafea hartzera aterako ziren, beti egiten zuten bezala. Inoiz ez nintzen beraiekin joan lanean neraman denbora guztian.

Ireki eta irakurtzen hasi nintzen. Erderaz zegoen. «Muy Sra. nuestra» hasten zen. Pixka bat txokatu zidan horrek. Bi puntu. «La dirección de esta empresa le comunica por medio del presente escrito, la decisión de proceder a su despido disciplinario, basado en los siguientes hechos», bi puntu. Azken hilabeteetan nire lanaren errendimendu normalaren borondatezko gutxitze jarraitua antzeman zutela eta, langileen estatutuen 54.2.e) artikuluen arabera, hori oso falta larria zela. Data errepikatzen zen berriz eta finiki-tuari buruzko zerbait jartzen zuen azken parrafoan. Ez nintzen asko enteratu.

Lasaitasun handia hartu nuen. Gero eta gehiago kostatzen zitzaidan goizero toki hartara joatea. Mahaiari neuzkan gauzak hartu nituen: ur botila, lan koaderno eta estutxea. Gero, materialen apaletik foxforito eta boligrafo batzuk ere hartu nituen, eta ofizinatik atera nintzen. Ez nintzen inorekin topatu kalera bidean.

Treanean bueltan, nire gorputza entzuten saiatu nintzen, kinesologoak askotan esaten zidan bezala. Zerbait sentitu beharra neukan. Kalera bota berri ninduten. Pixka bat gehiago itxoin nuen. Ezer ez. Ez nuen tristurarik sentitzen, lotsarik ere ez. Berdin zitzaidan. Barrutik hilda banengo bezala zen. Ezin nuen ezer sentitu. Markelek bakarrik zuen ni berpizteko boterea, jaungoikoak bezala. Mobilean jasotako bere mezu batek desfibriladore baten gisa funtzionatzen zuen nire gorputzean. Bihotza belarrietara

igotzen zitzaidan eta taupada indartsu eta azkarrak entzuten nituen buru barruan. Segundo batzuk lehenago mediokre eta zentzurik gabetzat jotzen nuen nire ingurua zoragarria bihurtzen zen kolpetik. Alboan nuena besarkatu eta muxuka hasteko gogoia sartzen zitzaidan, kale erdian saltoka eta dantzan hastekoa. Zentzua hartzen zuen guztiak, eta dena bere mezu bat jaso nuelako. Ez zitzaidan inoiz pasa.

Lau hilabete ziren bere mezurik jasotzen ez nuela.

Lanetik bota eta gero, behin paroko paperak egiteko Lanbide eta SEPEko inkordioa pasa ondoren, etxean entzerratu nintzen azkenean.

Denbora asko pasatzen nuen leihotik begira. Bizitzak jarraitu egiten zuenaren ideia —ezer pasa izan ez balitz bezala— txokantea iruditzen zitzaidan. Denak gezurrezkoa zirudien, zientzia fikzioa. Mentalki nire hurrengo giza-interakziarako prestatzen nintzen. Elkarrizketak altuan errepasatzen nituen. Jendearekin gurutzatzeak eta zer esan ez jakiteak oso urduri jartzen ninduen. Hain lasai ikusten nuen jendea bere paperean, harritu egiten nintzen. «Ni ere lehen horrelakoa nintzen» pentsatzen nuen. Noiz utzi nion parte hartzeari eta noiz hasi nintzen ikusle bihurtzen? Ez nuen momentua gogoratzen. Bizitzen ahaztu zitzaidan. Ez nekien nola egiten zen.

Konturatu nintzen ordura arte egindako guztia Markelengatik egiten nuela: lanera joan, jendearekin geratu, nire itxura zaindu, kirola egin. Beti bera buruan. Orain ez nuen itxurarik egin behar.

Janaria erosteko bakarrik ateratzen nintzen hasieran kalera. Beti joaten nintzen denda etxe aldamenean zegoen, baina nahikoa zen edozeinekin gurutzatzeko; ezin nintzen fidatu. Dendan hanka sartzeren bat egiteko beldurrez egoten nintzen beti eta, presarekin, gauza asko erostea ahazten zitzaidan. Nire buruari esaten nion: «Gehiegi hitz egiten ari zara» edo «Txorakeriak esaten ari zara, jendeak arraro begiratzen ditu». Edo, aldrebes: «Denbora gehiegi daramazu isilik, esan zerbait». Akatsen bat egiten banuen,

gauean ezin izaten nuen lo hartu eta konbertsazio osoa errepikatzen nuen, non huts egin nuen ikusteko.

Eroskitik etxera eskatzen hasi nintzen online. Ez nuen afaltzen. Horrela, janaria beranduago bukatzen zen.

Egunero behar diren gauza asko ahazten zitzaizkidan: mobileko zenbakia, DNIarena, bankuko txarteleko pina... Txartela blokeatu zitzaidan pare bat aldiz. Hori konpontzeak sekulako nekea eman zidan.

Posible al zen buruan sentitzen nuen eromen guzti hori Markelengatik maitasunak eragindakoa izatea? Baietz pentsatzen nuen. Nahiago nuen pentsamendu erromantiko hori izan, nire barruan zerbait gaizki zegoela pentsatzea baino.

Kinesologoak surf analogiak erabiltzen zituen niri gauzak esplikatzeko.

—Ezin dugu itsasoa kontrolatu baina olatuak surfeatzen ikasi dezakegu, ulertzen?

Ezaguna egiten zitzaidan esaldia, Yogi tea batetik edo.

—Ustet baietz.

—Badakizu surfeatzen?

Ez nekien serio galdetzen zidan edo metafora bat zen. Ezer ez erantzutea erabaki nuen.

—Duela gutxi surf ikastaro batean apuntatu nintzen, eta, sinetsidazu, bizitzan egin dudak gauzarik onena izan da —esan zidan.

Nire aurrean zegoen andre hura imajinatu nuen 50 urtetik gorako emakume taldean beste hamar atsorekin neoprenoa jantzita, aparretan taularen gainean tente jartzen saiatzen.

Sentsazioa nuen ez ninduela gustoko. Esaten zidan begirada zabaldu behar nuela, eta ez zitzaidalda komeni energia gastatzea itsasora sartzen olatu asko zegoen momentuan. Ur izkinan itxaron behar nuela olatuak pasa arte. Ez nion oso ondo ulertzen askotan.

—Bizitzan olatu handi askori egin beharko diozu aurre —esaten zidan—. Parean ikusita beldurra ematen badizu ere —AI AMAAAAA! buila egin zuen, eskuekin aurpegia tapatuz olatu imajinarioaren aurrean. Atzera egin nuen aulkian,

susto pixka bat eman zidan—, olatua ez da zure aurretik desagertuko, horrela, magia —eta bi eskuekin leherketa bat imitatu zuen airean.

Komentario haiengatik ondorioztatzen joan nintzen surf ikastaroan aurrera egiten ari zela egokiro eta aparretatik lehertu gabeko olatuetara pasa zela.

—Egin behar duzuna da indar guztiekin arraun egin olatuaren parera iritsi arte. Ulertzen?

Buruarekin baietz egin nuen, eta horrekin lezioa amaitutzat eman zuen. Isilik geratu zen.

—Ta gero? —galdetu nion.

—Nola, «ta gero»? —burla egin zidan, nire ahotsa imitatuz.

—Behin olatuan pareta allatuta, ze?

Erantzuna pentsatzen bezala geratu zen segundoko batzuk.

—Gero taulan bularra altxatu behar duzu pixka bat, olatua zure gorputzaren eta taularen artetik pasatzeko.

Isilik geratu ginen berriro.

—Yoga egiten duzu? —galdetu zidan.

Ezetz egin nion buruarekin. Dezepzionatzen ari nintzaiola sentitu nuen, berriro.

—Probatu beharko zenuke. Oso ona da nerbioentzako.

Paretako erlojuari begiratu nion disimuluz.

—Begira... argi esango dizut —tonu serioa hartu zuen eta mahaian pixka bat aurreratu zen ukalondoekin—. Oraintxe bertan ez zenuke jakingo olatu onik ikusten muturren aurrean izanda ere, ulertzen?

Kopeta zimurtu nuen.

—Obsesionatuta zaudela Markel horrekin, alegia.

Ordua zen.

—O, ahaztu baino lehen! —gelditu zidan atea irekitzeraz nindoanean—. Hurrengo astean ez naiz kontsultan izango. Fuerteventurara noa *surf camp* batera taldekoekin!

Gehiago ez itzultzea erabaki nuen orduan, oraindik eta insoportableago egongo zen-eta opporretatik bueltan.

Goiz batzuetan, kafeinaren eraginpean, mun-

dua ez zitzaidan horren toki txarra iruditzen. Hobera egin nezakeenaren inpresioa nuen. Ez nuen Markelengan gehiegi pentsatzen eta, pentsatzen baldin banuen, errukiarekin egiten nuen. Inkusio esker onarekin eta maitasunarekin. Dena posible ikusten nuen: denok lagunak izatea, gure gorrotoak ahaztea. «Denok itsasontzi berean goaz» pentsatzen nuen. Argia ikusiko banu bezala zen; ulertuko banu bezala alienatzen gaituzten gauzak azaleko gauzak direla eta denok gauza berdina nahi dugula.

Horrelako egunetan, trenean nengoenean, leihotik begiratzen nuen eta egunsentia bezalako eguneroko esperientziak apreziatzeko gai sentitzen nintzen. Txikitatik ezagutzen nituen paisaiak lehenengo aldiz ikusiko banitu bezala zen: *beginner's mind*. Goizetako ihintza eta zuhaitz altuak hasieran, arrosa koloreko zerua eta hiriko kaleak, etxeak eta jendearen joan-etorria gero... ederrak iruditzen zitzaizkidan. Mundu guztia borrokan ari da, hori zen nire azken aldiko lema. Kanean jendearen aurpegi miserableak gurutzatzen nituenean errepikatu behar nituen horrelakoak, enpatia pixka bat sentitzeko. Mundu guztia ahal duena egiten ari da esaten nion nire buruari.

Pastilla berriak beste bi hilabetez luzatzea lortu nuen medikuari paniko-atake faltsu baten berri eman eta gero. Jendeak adikzio okerragoak ditu, pentsatzen nuen, eta konplexurik gabe erakusten ditu. Antsiolitiko eta antidepressiboak beren estigma galtzen ari dira, gainera, jarraitzen nuen. Garai ona tokatu zait. Gero, zientziara jo baino lehenago, belar-dendetan gastatu nuen diru guztiaren kalkulu mentalak egiten hasten nintzen eta nire buruarekin haserretzen nintzen, pixka bat nahita, gehiegi ez emozionatzeko. Pastilla berrien beste gauza onetako bat zen Gillen gutxiago behar nuela. Antsietate handia nuen gauetan norbaitekin lo egin behar izaten nuen, nire buruarekin bakarrik egotea pentsaezina egiten zitzaidalako, eta, hasieran, Gillen ia egunero etortzen zen etxera. Azken aldian, berriz, beldurrik pasa gabe bakarrik lo egitea lortzen nuen. Gau horiek garaipenak bezala kontatzen nituen, txikitik ohean pixarik ez egitea lortzen nuen bezala. Serieak edo pelikulak bakarrik ikusi nitza-

keen, arraro sentitu gabe, eta irakurtzen ere kontzentratu nintekeen gehienetan. «Gillenekin esnatu izan banintz», pentsatzen nuen, «kafearen ordezkolakaua galletekin hartzen ikusi beharko nuke, ume bat bezala, eta noiz alde egingo zuen itxaron beharko nuke, kaka lasai egiteko».

Egia osoa zen, baina, Markel ez zela inoiz desagertu. Beti egon zen nire barruan eta hor jarraitzen zuen, pixka bat faxismoarekin Espainian gertatzen den bezala. Markel hanka azpitik kendu ezin nuen txapapotea zen, txikitik hondartzatik bueltan pegatzen zena. Zuhaitz batzuei enborrean hazten zaien tumore bat, burmuin formako bola erraldoi bat. Batzuetan Spotifyen Markel gogorarazten zidaten hiru edo lau kanta tokatzen zitzaizkidan segidan. Ez dakit zer konplot egiten zuten nire kontra algoritmoek. Horrelakoetan, berari ez idazteko, ikaragarritzko esfortzua egin behar izaten nuen. Joko mentalak asmatzen nituen. Esaten nuen, adibidez, «Orain idazten badiot, ez dakit zein hilko da». Ama, imajinatu.

Markelek erretzen zuen tabako marka bera erretzen zuen norbait pasatzen bazen nire ondotik kanean, mendi puntan egongo banintz bezala hartzen nuen fuerte arnasa, birrikak kez betez. Eta bere muxuak gogoratzen nituen, tabako eta haxix gustua zutenak.

Gero eta gehiagotan, kuadrillakoekin geratzera behartzen nuen nire burua, eta dena ondo irteten zen. Beraiekin konektatu nezakeen eta lehen egiten nituen gauzak egin: kanpoan afaldu, barre egin, pixka bat mozkortu eta, igual, dantza egin.

Horrelako egun batean, lagunekin tabernan nengoela, kamareroa gerturatu zitzaigun edariekin eta Markelen kolonia bera usaindu nuen. Inpultsiboki, besotik heldu eta zein kolonia marka zen galdetu nion. Lagunak harriritu geratu ziren; normalean ez nuen kamareroekin hitz egiten. Erreakzio arraroa izan nuen. «Jean Paul Gaultier» esan zidan, harro. Denak begira antzematen nituen. Erantzun bat espero zuten, kontziente nintzen. Barrez hasi nintzen. Ez ziola batere pegatzen Markeli kolonia horrek pentsatu nuen. «Jean Paul Gaultier? Seriyó?» Kamareroak baietz esan zidan: «Seriyó, bai». Eta, bandeja eskutan, barrara bueltatu zen nahastu samar. Zein zen Markel? Hasi nintzen galdetzen.

Ezagutzen al nuen? Ezagutu al nuen noizbait? Igual kolonia horrek pila bat pegatzen zion, azken finean. Nik zer nekien! Histerikoa iruditzen zitzaidan. Elkarri begira ari ziren lagunak orain, ez zekiten esku-hartu edo zer. Jean Paul Gaultier! Ezin nuen barrez geratu. Hau eskandalua! Engainatua sentitzen nintzen, baina ez kolonia-gatik, ezta Markelengatik ere. Ez nengoen hase-rretuta. Alderantziz, pisu handi bat gaineratik kendu banu bezala zen. Ia-ia pozik nengoen.

Dena hain zein kasualitatea! Markel eta biok ezagutu izana. Beste edozein izan zitekeen. Okasioak besterik ez gara! «Ondo zaude?» galdetu zidan Anek, eskuarekin nire kokotsa hartuz eta aurpegia berarengana zuzenduz. Begiak oso irekita zituen; pixka bat beldurtuta zirudien. Isildu egin nintzen, ez nuen inor ikaratu nahi. Malkoak sekatu nituen eskuekin eta lasai begiratu nion. «Bai» esan nion, «hobeto nao».

Txikitako lagunak

Iñaki Iturain

Andatza mendiaren atzetik eguzkia azaltzen ari den momentuan atera da mutil gaztea ere etxetik. Jardinean zain dauka lagunik onena: bizikleta. Berak bizilagun kuttuna deitzen dio, sekula huts egiten ez diolako. Beste egunetan ez bezala, gaur eskuetan bi zakuto ditu, arropa eramatekoak. Bizikletaren alde banatan kokatu ditu, atzeko aldean; jarlekua lehortu du, trapu batekin ihintzaren hezea kenduz; ur-botila iturrian bete eta, gurpilak airez ondo puztuta dituela konprobatzeko, atzamarrekin heldu die, aurrea aurrerekoari eta gero besteari. Atzekoa beste pixka bat puztu du, gaur ohi baino kilo gehiago eraman behar dituela eta. Zortzi eguneko bidaia egitekoa da, hiru lagunekin batera. Galiziaraino iritsi nahi dute, Compostelara, Kantauriko kostalde osoa zeharkatuta. Zarautzik abiatuko dira, goizeko zortzietan, itsasoari begira bidaiako lehenengo talde-argazkia egin ondoren.

Bizikletari egin beharreko zera guztiak eginda, etxean sartu da, sukaldean. Gerritik helduta, goxo-goxo besarkatu du bere maitea. Sabela laz-tandu dio.

—Gaurkoan seguru baietz; gogoratu gaurko eguna: ekainak 21, solstizioa. Datorren urteko udaberriaren hasieran jaioko zaigu haurra, neguaren bukaeran.

Irribarre samurra izan du erantzuna. Kafea elkarrekin dastatu dute, poliki, elkarri begira.

—Trenez joan ninteke Zarautzaino, baina bizikletaz joango naiz, bidaia osorik txirringan egin nahi dut, etxetik Santiagoraino. Badaezpada Oribarzar aldetik joango naiz; igande goizeko lehen orduetan ero asko ibiltzen da errepedean, abiada osoan, eta han ez da ibiltzen automobilik.

Elkarrekin atera dira jardinerari. Bi gurpileko bere zalditxoan eserita, zaldunak azken musua eman dio bere damatxoari, abiatu aurretik. Zi-

klistaktxantxa hori egin nahi izan du, momentuari tentsioa kendu eta agurrari irribarretxoaren antzeko. Damakzaldunari kaskoa buru gainean ezarri, haren uhala kokospean lotu eta txamaratxoaren kremlera leporaino igo dio:

—Ez hoztu, fresko dago oraindik; eta kontuz ibili, bizizale!

Bizizalea kalera atera da jardinetik:

—Laster arte, bihotza. Zaindu!

Atzera begira, eskuin eskuarekin agur eginez urrundu da etxetik, poliki.

Eguna ederki argitu du. Dotore dator. Erriorearen gaineko zubia gainditu, eskuinera hartu eta espaloitik joan da Aitzondoraino. Han tartetxo hartu du herriari begiratu bat emateko, laster arte esateko. Ondoren, erriorearen ondoko bideari eutsi dio, lasai, badu-eta nahikoa denborara.

«Hauek oraindik parrandan ibiliko dituk Zarautz aldean» esan du bere artean. Futbol taldeko lagunak etorri zaizkio gogora. Bart afaria izan dute soziedadean, denboraldiari agur esateko. Bera ere joango zen gustura, baina gaur egun osoa bizikleta gainean eman behar eta ez zitzaion komeni atzoko afaria eta haren osteko parranda.

Aurreko igandean jokatu zuten denboraldiko azken partidua, eta afaria oporrak hartu aurretik elkarri agur esateko aukera zuten. Bezperan elkartu ziren Fiti eta biak. Fiti lagunik onena du, eta horregatik eskatu zion hark atzoko afarira joateko; saiatu zen gogotik laguna konbentzitzen, baina ez zuen lortu.

Kuadrillan Fiti esaten diote, Fitipaldiren jarraitzailea delako. Fiti eta Marino, horietatik dira bi lagunon kuadrillako goitizenak. Bizikletazaleak Marino Lejarreta ziklistaren estiloa du gogoko, haren patxada.

Marinori herenegun Fitirekin izan zuen

solasaldia etorri zaio gogora. Mokadutxo bat janez, txikitako kontuak astintzen aritu ziren. Oso ibilbide antzekoa egin dute bizitzan, zazpi urterekin eskolan hasi zirenetik. Leku guztietan elkarrekin ibiliak dira, Marino unibertsitatera joan zen arte. Fiti, berriz, fabrika batean hasi zen lanean, altzaritan. Orduz geroztik gutxiagotan elkartzen dira. Azken boladan futbolak batu ditu, herriko taldean jokatzen segitzen baitute biek.

Herenegun elkartzek ez zuen balio izan atzokorako konbentzitzeko, baina bai bakoitzaren plana elkarri kontatzeko. Marinok aspaldiko zaletasuna du bizikletan ibiltzea. Bizian bidaiatzea da gehien gustatzen zaiona, ahal dela trafiko gutxiko bigarren mailako bazterbideetan barrena galtzea, herri txikiak igarotzea, bertakoekin hizketan geratzea, eta nekeak jotzen duenean, erreka bazterren batean geratu eta uretan gorputzari atsedean ematea. Unibertsitatean ezagutu dituen lagun batzuekin elkartuko da Zarautzen, Kantauriko itzuliari ekiteko. Santiagoraino iritsi nahi dute, herriz herri, hondartzaz hondartza.

Fitik auto azkarretan ibiltzea maite du. BMW bat dauka. Fabrikako soldatak ematen dio horrenbesterako. Lagun batek tuneatu egin dio kotxea, eta dotore geratu zaio oso. Irabazleen kolorea eman dio, hori-horia. Bi aste barru autorallye bat izango da aldameneko herrian, zortzi kilometroko lasterketa aldapan gora. Azken bost urteotan ez du hutsik egin: kurba egoki bat hartuta, han egon da beti bolidoei begira, behetik gora ziztu bizian nola etortzen diren. Baina aurten ez da bide bazterrean egongo. Lehenengo aldiz, bera ere protagonista izango da, bere bolidoan saiaturako da denbora ona egiten, gora besteak baino azkarrago iristen, eta sekulako ilusioa du, irrikatan dago eguna noiz ailegatu.

—Hurrengo denboraldian, seguru asko, ez duk jokatuko. Hauxe duk aukera denekin ondo gelditzeko. Bihar soziedadean afaldu, Zarautzen parranda egin... igande osoa daukak deskantsatzeko. Astelehen goizean abiatuko zarete.

—Esan diat ezetz, igandean goiz abiatzekoak gaituk. Nigatik balitz, atzeratuko nikek astelehenera, baina besteek esan zidatek ez digula denbora emango Santiagoraino ailegatzeko, aste-

bete besterik ez diagu-eta.

Fitiri kostatu zaio onartzea adiskidea ez dela afaltzera joango, eta are gogorragoa egiten zaio onartzea datorren urtean ez duela futbolearen segituko; Marinok oraindik beste inori esan ez diona aitortu baitio bere txikitako lagun minari.

—Hara, hiri esango diat: Oso litekeena duk, datorren denboraldia bukatu baino lehen ni aita izatea. Horretan ari gaituk Olatz eta biok, horretan saiatzen. Eta haur baten aita izatea eta futbolearen segitzea ez dituk bateragarriak niretzat.

—Nahi duana egintzak, hara! —Hori esanda, etsi du Fitik.

Marinok larunbata bidaiarako erosketa txiki batzuk egiten pasatu du, bizikleta preparatzen, eta Olatzekin pasean. Goiz oheratu dira. Astebetean ez dute elkar ikusiko.

Soziedadeko afaria kristorena izan da, jan eta edan ugari. Handik aterata, futbol taldeko mutilak Zarautza joan dira. Diskoteka, musika, gintonica, batzuen porroa... gaua asko luzatu da. Fitik dantza ere egin du neska batekin. Biak gustura, kalera atera eta, gauaren epeltasuna alde, hondartzara jaitsi dira. Hango bazter batean etzan eta txortan saiaturako dira; saiaturako ez, alkohola gehiegiak ez die asko lagundu. Ordu berean, Olatz eta Marino, esnatuta, jaiki aurretik elkartu egin dira, goxo-goxo; mutilak neskari «seguru gaurkoan baietz» esanez, bat egin dute. Azken hilabetean plazera ez dute izan bategite sexualaren helburu bakarra, aita eta ama izan nahi dute.

Fiti, neskari agur esanda, diskotekara itzuli da. Hantxe dabilta lagunak oraindik ere. Haiei batu zaie, gaueko azken indarrak dantza eroan xahutu ditu, azken gin-tonicak lagunduta. Marinok ondo gosalduta du gaur, indarrez heldu nahi dio lehenengo etapari. Zerua garbi ageri da. Fiti, Zarauzko diskotekatik taldeko bi lagunekin irten da, BMWa hartzera abiatu da.

Marino Oribazarreko hondartzara iritsi denarako, eguna guztiz argituta dago; eta Zarauzko kanpinera daraman aldapa tenteari ekin dio.

Fitik harro erakutsi die bere bi lagunei BMW tuneatu berriaren kolore hori indartsua:

—Zer, gustatzen al zaizue? Datorren igandean nik ere kolore horiko maillota jantziko diat ra-

lly-igoeran. —Txantxetan esan die hori, noski, bai baitaki lehenengo urtea izanda ez duela lasterketa irabaziko, baina oraindik astebete gertatzen zaio kurbetatik azkar nola atera entrenatzeko. Autoan sartuta, motorra martxan jarrita hondoraino sakatu du azeleragailua, zarata ozenarekin makinaren indarra erakusteko. Ruun, ruun!

Kopilotu doanak esan dio:

—Nahi al duk kotxea nik eramatea? Hiru zerbeza besterik ez diat edan gau osoan.

—Bai, zera! Hara, bestea! Lasai, txo, txapelgorriek ez gaitiztek harrapatuko. Horiiek Orioko gainean jartzen dituk edo, bestela, tren-geltokiko errotondan, zubi ondoan; Oribarzarretik joanda, dena konponduta, gero kotxea Aitzondon utzi eta handik etxera oinez, kito!

Errepidea libre dagoela, ordu polita da hau BMWaren azelerazio-indarra probatzeko. Minutu bakarrean jarri dira autopista ondoko errotondan. Fitik ez du aukera alferrik galdu nahi izan errotondari segidan bi buelta emateko, kotxea eskuineko bi gurpilen gainean jarrita. Iiiiiiiiiiii-iiiiiiii!

—Baina, baina... nora hoa hi? Zer habil? —kexatu zaio, larrituta, atzeko partean eserita doan laguna. Errotonda atzean utzita, kanpinera igotzen den aldapari ekin dio Fitik.

Marinok, Oribarzarreko malda latza gainditu eta, aldapa gaineko iturrian, ur tragoa hartu du. Bere aurrean naturak ikuskizun bikaina eskaini dio, kolore festa izugarria: eguzkiaren horia, ortzi-mugan batzen diren itsasoaren urdin iluna eta zeruaren urdin argia, Zarauzko hondartza luzearen horixka, golf zelaiko belazearen berdea eta, Getaria aldetik, San Anton mendiko

itsasargiaren txuria. Zeruari erreparatu dio; laino beltz bakarra sumatu du, gainerakoa garbi ikusten du.

Laino beltzak ekarrita bezala edo, burutazio bat izan du: oraintxe dagoen puntuan, berdin-berdin jaitsiko litzatekeela, inertziaren indarrak alde batera edo bestera, aurrera edo atzera, 500 kilometrotan aldapa gorabeheratsu askoko bide neketsua lagunekin, edo minutu gutxi batzuetan etxeko lasaitasuna Olatzekin. Baina erabakia hartuta dago. Aurrera segitzeko aldapa beheara abiatu da, pedalei eragin gabe. Garaiz doa, minutu gutxi barru Zarauzko hondartzaren gaineko miradorean lagunekin elkartuta bidaiari ekiteko.

Fitik kanpinera bitarteko goranzko aldapa laburra ondo aprobeztatu nahi du. Goraka hasi eta bostehun metrora dagoen errotondan bi ez, oraingoan hiru buelta eman ditu abiada bizian, gurpilak txirriatzen.

—Ikusten al duzue zer gurpil onak dauzkan, nola heltzen dioten asfaltoari?

—Hoa mantsoago, Fiti! Azkarregi hoa-eta! —atzekoak.

Aldapa horretan ordu hauetan inor ez dabilela aprobeztatuz, hurrengo bihurgunean BMWaren motorra proban jarriko du, ea kurba nola hartzen duen abiada handian sartuta!

Fitik ez dakiena da Marino bere kontrako noranzkoan datorrela, aldapan beheara, eta oso-oso gertu duela.

Marino, behe-raka, lasai, bihurgunean sartu da eta, han, goiko gainetik ortzi-mugara begira dastatu dituen koloreen osagarri, igande goizak, bat-batean, odolaren gorria eta horrorearen beltza hartu ditu.

Leihotik

Ane Etxabe Usandizaga

Laugarren pisuko gizona kirolaria da. Adinean aurrera egin izanagatik ere, ibiltzea da bere larunbat goizetako jarduna. Beldurtia ere badirudi. Etxekoia, gutxienez. Ibilaldi luze horien guztien eszenatokia gure etxe aurrean dagoen eraikineko balkoia baita. Aurrera-atzera aurrera-atzera ikusten dugu larunbat goizero. Laukidun etxeko zapatillak eta musukoa soinean orduak pasa ditzake alde batera eta bestera. Noizean behin, haren emaztea ere agertzen da balkoian, eta trapu bat luzatzen dio gizonari, aurrera-atzera dabilen bitartean balkoiko baranda ere garbitzen joan dadin. FRI-FRAU. Hiru lau bueltatan, garbi-garbia uzten du.

Haren gainean bizi den emakumea, aldiz, erretzaile amorratua da. Badu deseroso itxura duen aulki bat balkoian jarrita eta han esertzen da erretzera. Gizona baino dezente gazteagoa da, alaba txiki batekin, baina ez diot zaletasun nabarmenik iragarri, erretzeaz haratago. Pijama arrosa bat janzten du, goxoa dirudiena, eta uniforme hori jantzita ateratzen da balkoira eguneko edozein ordutan. Ezin nezake esan zenbat zigarro erretzen dituen egunean, baina pentsatu izan dut guztiak errenkan jarritz gero, laugarren pisuko gizonaren balkoiko buelta oso bat izatera iritsiko liratekeela.

Niretzat zaila da ulertzea zergatik egiten dituzten gauza horiek. Ez dut ulertzen gizonak zergatik erabaki duen kalera ez ateratzea eta balkoia erabiltzea kirol pista gisa. Zaila egiten zait ulertzea nola den posible emakume gazte horrek egunean zehar, eta alaba txiki batekin, balkoian erre beste egitekorik ez izatea. Baina ez ditut ezagutzen, ez dakit nortzuk diren eta zergatik bizi diren bizi diren moduan. Egunero ikusten ditut, baina besterik ez.

Badira ulerterrazagoak egiten zaizkidan kasuak. Goi-goian bizi diren aitona-amonen

egoera, esaterako. Ez dute eserlekurik, eta barandari helduta tente egoten dira. Biak batera beti. Bi aldiz ateratzen dira balkoira: bazkalondoren eta bisitaren bat espero dutenean. Erraza da imajinatzea zergatik egiten duten hori. Bazkalondoren, egunero, errituala da. Norbait espero dutenean, urrutitik ikusi eta azkar-azkar atea irekitzera joan ahal izateko. Gainerakoan, etxe barruan beti. Biak bakarrik normalean. Niretzat, misteriorik gabeko bizitza. Zoritxarrez.

Eraikinak ezberdintasunak ikusteko ere balio du. Badaude bi gizon gazte adin bertsukoak. Chefa bat, lorezaina bestea. Biak emazte eta haurrarekin bizi dira: bat eskuin aldean eta bestea ezkerrean, bi pisu gorago. Chefaren sukaldean parez pare ikus dezaket 6. pisutik. Modernoa da, txuri-txuria. Haren emaztearentzat eta haurarentzat sukaldean jarduten da oso maiz. Agerian da bere egitekoa: familiari otorduak prestatzea. Ez dakit zer prestatzen duen, baina Michelin izar horietako bat mereziko luke gizonak, sukaldean pasatzen dituen orduak kontuan izanik bakarrik.

Lorezainak ere badu familia, baina bere kezka nagusia dauzkan marihuana landareak dira. Hasieran, itxura oneko eta oparoak zituen. Gero, gehiegi ureztatuta edo eguzki gehiegi hartuta, horitu egin zitzaizkion batzuk. Etxe barrura sartu zituen; baina, hala ere, ezin. Zazpi edo zortzi zituen; orain, bakarra geratzen zaio. Badu nahiko buruhauste.

Biak adin bertsukoak dira, biak leku berean bizi dira, biek dituzte emaztea eta haurra. Oso ezberdinak ematen dute.

Bietako inor ez dut inoiz kalean topatu. Agian, bai, eta ez naiz konturatu. Zaila da jakiten. Beren etxeetatik kanpo ez baitituzte irudikatzen, nolakoak diren ere ez baitakit. Nire paisaiaren parte dira biak, baina ez dira identitateak.

Batzuetan imajinatzea gustatzen zait. Beren

bizitza nik neuk asmatzea. Chefa euskalduna izatea nahi nuke, ez dakit zergatik. Joseba edo horrelako izen klasiko bat ondo datorkio. Irudikatzen dut goizetan bulego batean lan egiten duela eta, arratsaldeetan, amari bisita egiten diola. Kezkatuta dabil amaren osasuna dela eta; perral ikusten du eta ama horrela ikusteak barruak mugitzen dizkio, baina kostatu egiten zaio onartzea. Gero, erosketa batzuk egin eta emaztearekin eta haurrarekin parkean elkartzen da. Laneko kontuak kontatzen dizkiote elkarri eta alabak eskolan bizkotxo bat egingo dutela esaten dio aitari. Etxeratzen dira hiruak eta emazteak haurra dutxatzen duen bitartean afaria prestatzen jartzen da. Afal ostean emazteak amaren inguruan galdera egiten dio eta, ez daki zergatik, baina negarrak hartzen du. Ez da sentimenduak azaltzeko gai, baina emazteak ulertzen dio.

Asmatzea gauza polita da. Bihar, chefa Hugo izan liteke, Salamancatik duela 7 urte etorritako arotza.

Imajinatzeak, ordea, baditu bere mugak. Dakiguna ezin dugu asmatu. Batzuetan, bila ibili gabe ere, bizi garen lekuan bizi garelako, auzotarren informazioarekin topatzen gara. Bigarren

pisuan bizi den bikoteari buruz zenbait gauza dakizkit:

- Badakit Jon eta Amaia izena dutela: elkarren izenak garrasika adierazten dituztelako.

- Alkoholarekin harreman kaltegarria dute: Amaia goizeko getarako beheko tabernan egoten da zurrutean eta arraroa da Jon zerbeza lata bat gabe ikustea.

- Gizarte zerbitzuetako langile baten bisita izaten dute ostegunetan: taberna paretik pasatzean, Amaia komentatzen entzun izan diot. Nik neuk ere ikusi izan dut ostegunetako bisitaren etorrera.

- Amaiak ez du lanik egiten, eta Jonek bai.

Hainbeste datuarekin ez dago asmakerietan jarduteko hutsune asko. Xehetasunak bakarrik falta zaizkit. Nahi izan gabe ere, gehiegi dakit.

Parez pare gauden bi eraikin erraldoi hauetan intimitate hitzak beste esanahi bat hartu du. Elkar ikusten dugu, bata bestearen eguneroko ikuspegiaren parte gara eta, aldi berean, ezezagun talde bat besterik ez dugu osatzen.

Zer ikusten dute beren balkoietatik? Nola ikusten naute? Zer dakite nitaz? Zer irudikatzen dute?

Basoaren alaba

Josu Galdos

Baso hartan bizi zen jaio zenetik, bakar-bakarrik; basoaren alaba zen, nonbait. Zuhaitz handi baten gainean zegoen, sarritan bezala, etzanda, adar artetik igarotzen ziren hodeiak behatzen. Bere ondoan, katagorri bat ezkurrak pilatzen ari zen; batzuetan, basoaren alabaren gainetik pasatzen zen, eta neskatoari hori asko gustatzen zitzaion. Baso hartako animaliek ederki ezagutzen zuten neskato hura, bazekiten ez zela arriskutsua, eta haren inguruan lasai asko ibiltzen ziren.

Basoaren alaba beti zegoen adi, bere buruan pentsamenduak tarteka azaltzen ziren, baina oso mantso, eta berak, zeruko hodeiak bezala behatzen zituen, nola sortzen eta aldentzen ziren ikusiz. Lasaitasunak eta zorionak ez zuten inolako zailtasunik basoaren alabaren gorputzeko zelula guztietan lasai asko hedatzeko.

Basoko mugimendu etengabea liluraturik bizi zen, adi. Une hartan, hodeien artetik, eguzkia azaldu zen, eta haren berotasuna eskertu zuen bere gorputz biluziak. Loak hartu behar zuela sumatu zuen, eta adar handi batera hurreratu eta gozo-gozo bere baitan kiribildu zen. Txori batzuk bere gainean pausatu zirela sentitu zuen, bere gorputz eta buruan saltoka hasi ziren, eta basoaren alabaren ezpainek irribarre txiki bat marraztu zuten. Eguzkiaren epelean, zuhaitzaren kulunkan eta txorien laztanekin, poliki-poliki loari bere lana egiten utzi zion, eta basoaren magalean gozo umildu zen.

Aski ezkutuan dago baso hori, inor gutxik ezagutzen du; baina, egun hartan, hiriko gizon bat bertara iritsi zen. Gizon hura Korai zen, eta mendi eta basoetan zehar ibilaldi luzeak egitea gustatzen zitzaion. Bere buruan pentsamendu eta emozioak trumilka igarotzen ziren bata bestearen atzetik. Erabaki garrantzitsuak hartu

behar zituen eta, beste askotan bezala, ibiltzera atera zen, burua argitu eta hurrengo egunetan egin beharrekoak zehazteko. «Bai, bihar bertan hitz egingo dut Garonirekin. Gauza asko dugu hitz egiteko, egoerak ezin du horrela jarraitu... A! Eta, ahaztu baino lehen, banketxetik ere pasatu behar dut, bestela dena atzeratuko da eta...»

Korai bere pentsamenduetan murgilduta zihoan, etengabe makil eta sustraiekin estropezu-ka eta zalaparta izugarria sortuz isil-isilik zegoen baso hartan. Ez zuen bere gainean adar batean etzanda zegoen neska ikusi. Basoko neskatoa esnatu egin zen, eta segituan ikusi zuen gizon hura, eta azkar sumatu zuen haren barruko eta kanpoko durrunda. Aspaldian ez zen gizakirik azaldu baso hartan, eta basoaren alaba, une batez, zorabiatuak sentitu zen. Gizon haren pentsamendu eta emozioak bere baitan senti zitzakeen, baso hartako dena bere baitan sumatzen zuen bezala.

Zer egiten zuen pentsatu gabe, beti egin ohi zuen bezala, jauzi batez, gizonaren aurrean ipini zen. Harriturik zegoen gizon haren etengabeko pentsamendu xelebreekin: izugarritzko abiaduran zihoazen, gehiegizkoa iruditzen zitzaion, eta zerbait egin behar zuela pentsatu zuen, baso hartan horrela ibiltzea ez baitzitzaion batere egokia iruditzen.

Korai, sustoarekin, muturkatu eta lurrera erori zen, zeharo harriturik... «Baina nondik atera da neska hau? Zer egiten du biluzik? Agian nire laguntza beharko du...» Korai ez zekien zer egin. Han zegoen neska hura, berari begietara begira, hain serio eta geldi...

Basoaren alabak ezin zuen gizon haren barruko durrunda jasan, ez zegoen horrelako mugimenduetara ohituta, nolabait eten behar zuen... Gizon

hura ez zegoen ongi, zerbait egin behar zuen...
Eta jakin zuen, bai, zer egin behar zuen.

Basoaren alaba gizonarengana hurbildu zen bat-batean, pausu arinez, eta Korairi, ezustean, masaileko handi bat eman zion. Horrelako masailekoarekin, Koraik oreka galdu behar zuela pentsatu zuen, eta poliki-poliki, lurrean eseri zen. Basoko neskatoa pozik zegoen, gizona hobeto zegoela nabarmena zela iruditu zitzaion, lasaiago.

Koraik, berriz, hasierako harridura gaindituta, ongi sentitzen zela bakarrik zekien: biziberrituta sentitzen zen, zartako hark bere burua baretu balu bezala.

Basoaren alaba, bere lanarekin gustura, zuhaitzera igo zen berriz; lo-kuluxkarekin jarraitzeko moduan zegoen, eta Korai, berriz, poliki-poliki eta isil-isilik, basotik aldendu zen, eguzkiaren berotasuna eskertuz.

Azkena

Garazi Urretabizkaia

—Azkena... Mesedez, Mai! Zin degizut! Azkena eta bagoaz. Egizu nigatik!

Honelaxe esan dit, besotik heldu eta erreguka, bere bizia azken horretara mugatuko balitz bezala. Nik, ordea, saturazio aurpegiz begiratu diot, ezer esan gabe, aurpegiko espresioari hitz egiten utziz. Dena den, abantailarekin jokutzen du. Ondo ezagutzen dugu elkar eta jakin badaki, gogo txarrez bada ere, ez diodala azken horri ezetzik esango.

Urte eta erdi igaro da kasik azken aldiz elkar ikusi genuenetik. Ditxosozko pandemia. Mugak ireki orduko bisitan izango nuela esan zidan, ni ikusteko beharra zeukala. Eta esan eta egin. Astebete ere ez da pasatu legeak aldatu zirenetik eta hementxe gaude biok, udazken kutsu malenkoniatsua isurtzen duten Manhattaneko kaleetan barrena gure laguntasuna agerian utziz. Urteak dira elkar ezagutzen dugula. Zer, urteak? Bizitza da elkar ezagutzen dugula. 3 urterekin hasi ginen haurtzaindegi berean eta bidelagun izan gara orain arte igaro diren gainontzeko 30 urteetan ere. Beti egon gara elkarrekin, beti elkar babestuz, haserretuz, elkarrekin bidaiatuz, istorioak partekatuz. Eta dramak. Eta minak. Beti biok bat. Zipi eta Zape, Pin eta Pon, Epi eta Blas, Maia eta Mailen. Institutuko garaian M&Ms deitzen ziguten, jatorrak izateaz gain, goxoak ere baginelako. Eta ederrak; ze, kristo!

Baina hasiera batean amaigabeko poza zena kezka bilakatzen hasi da egunen joanarekin. Egia esan, kosta egiten zait aurrean dudana betiko Maia dela sinestea ere. Beste bat dirudi. Aldatu egin didate. Hirugarren aldia da gaur gauza bera errepikatzen duena. Eta egunotako joera ikusita, azkena izango ez delakoan nago. Pandemia aurretik hasi zen dena. Beti izan du gauza, objektu, ekintza zein pertsonekin obsesionatzeko nolabaiteko joera bat. Adibide bat

ematearren: behin *Gambito de Dama* izeneko telesail famatua ikusi eta xakearekin obsesionatu zen. Egunak eman zituen horrekin, inguruko liburuak irakurri, aplikazioak deskargatu eta teknika berriak ikasten. Bi hilabeteren buruan (eta inolako arrazoirik gabe) aski bazuela okurritu zitzaion arte. Orduan, ordura arteko indar eta aurrerapen guztiak baztertu, eta ez zuen gehiago partida bat ere jokatu hurrengo urte osoan. Eta horrela gauza guztiakin. Zenbait jatekorekin, hobbyekin zein harremanekin. Dena bilakatu du pixkanaka kontsumo likido. Dena azkar, dena intentsitate handiz, baina dena efimero. Ez dio ezerk denbora luzaz beteko, beti pentsatuko baitu ez duen horrek orain duenak baino gehiago beteko duela. Eta orduan utziko du. Utziko du (egitea) maite duen hori are gehiago beteko duen beste zerbait aurkitu nahian. Eta frustratuko da. Eta negar egingo du. Eta nik, nola ez, nire altzoa eskainiko diot; beste eskuarekin Zygmunt Bauman-en obra irakurtzeari ekingo diodan bitartean.

Esaten ari nintzen bezala, guztia pandemia atarian hasi zelakoan nago. Beharbada, benetan maitatu eta denbora gehien iraun dion pertsona bakarrak harremanarekin etetea erabaki zuenean. Hondoan jota gelditu zen. Zatiturik, mila pusketatan. Eta hor izan ginen gu, gure posizio erosotatik gomendio bikainak emanez «Egin ezan Tinder, neska, eta ahaztu dena!» batek. «Instagramen ere jende interesgarri askoa ezagutzen omen da» beste batek. «Zertarako lotu bati hamaika desberdinekin egoteko aukera badun? Goxazan, eta gozarazi!» azkenak. Kontseilu zoragarriak ezer eta inorekin konpromisoa hartzeko arazoak dituen batentzat. Gora maitasun postmodernoa! Topa! Eta, nola ez, hor izan ginen hamaika azkenengoen aparretan, penak itotzeko ere. Beharbada, hor hasi zen dena, nire begien aurrean. Eta ez nintzen konturatu. Baina pan-

demiako bakardadearekin egoerak okerrera egin zuela esango nuke. Ikusten nuen etxetik etxera egiten genituen bideo deietan egoera eskuetatik ihes egiten ari zitziola. Baina nor nintzen, ba, ni une horretan itxialdia bakarrik eta 28 metro karratuko pisu batean ahal bezain ondoen eramaten ari zen norbaiti zerbait esateko? Baina orain damu naiz. Urrunegi joan dela uste dut. Ez da ohartzen bere mundua, bere zoriontasuna, horretara mugatu dela. Ez du ikusten, ez du ikusi nahi. Izaera ere nolabait aldatu zaiola sumatzen dut. Beti izan da neska alaia, izaera handikoa, pertsona segurua. Ero samarra eta intentsua, bai; baina beste gauza horiek guztiak ere bai. Orain, ordea, guztia pikutara joan dela sumatzen dut. Ez du kasik beste elkarrizketarik: beti beste

bat, beti azkena. Ezin du hori gabe bizi; hutsik sentitze da, itota, segurtasunik gabe. Aurpegiko espresioan sumatzen diot ezinegon batean dagoela denbora osoan. Ahalik eta beste bat hartzen duen arte. Dena kendu, baina indarra ematen dio nonbait bizio txatxuak. Laster aterako ote da zulo horretatik...

—Orduan? Azkena eta etxea joango gara? —ilusioz betetako ahotsak supituki atera nau nire gogoeten erreinutik.

—Ale, azkena! —erantzun diot desesperazioz josiriko irriño batez.

Eta hor doa, ez du atzera bueltarik. Ireki du poltsa eta atera du selfie makilatxo.

KLIK. INSTAGRAM. IGO. KLIK.

Atxakiak

Garazi Urretabizkaia

Doinua: Zer da gaur Donostian

1
Goizean jaiki eta
bizkarreko mina,
kasik pausua ondo
zuzendu ezina.
«Adinen gora hoa»
amak dolumina,
gazte-zahar deitzeko
sotiltasun fina,
eta horrek mintzen du
gaur minak adina.

2
Berrogeita bost urte,
ez naiz horren zaharra,
baina gaurkoan ezin
zuzendu bizkarra.
Medikura joan ta
honek irrifarra:
«Lasaigarriak hartu,
bestela belarra,
denbora duk hiretzat
sendagai bakarra».

3
Ezin soportatuaz
nire heriyua,
medikua utzi dut
ez baitzen yayua,
agendan azaldu zait
Zumaiko *brujua*,
jun ta hola bota dit
komentariyua:
«Hiretzat onena dek
balneariyua».

4
Interneten jarrita
«Balnearios» Klik!
Galizin onak daude,
aspalditik dakit;
denak urruti samar
Espainian galdurik,
ta, bat-batean, Kanbo,
hor Iparraldetik,
euskaldunen artera
joango naiz pozik.

5
«Baionatik Bilbora»
jarrita kotxian,
herritik abitu naiz
umore onian.
Eta a, ze sorpresa,
Kanbora bidian:
Pays Basque ta ikurrinak
badira denian,
baina euskararik ez
jendean artian.

6
Ailegatu naiz eta
nik «Eunon deneri!»,
baina erantzunik ez da
inondik ageri.
«S'il vous plait, s'il vous plait»ka
aitona bat neri,
ta haserre begira
hamazazpi begi;
esperientzia ez da
hasi ondoegi.

7
Kola egin dut eta
jaso albornoza,
«Monsier pour là s'il vous plait»
gizon baten boza.
Ur berotan sartzean
ai, ene, ze poza!
gatzatu zait azala,
alaitu bihotza,
umetxoan antzera
gaur behar dut goza!

8
Kuadrilla ederra gaude
sartuta putzutan,
kasik ilerik ez da
inoren burutan.
Monitoriai segiz
kortxuak eskutan,
hortxe ibili gera
urakin larrutan,
ta orain agujetak
behatzaren puntan.

9
Bataz besteko adina
laurogeien bueltan,
«Nola sartu ote haiz
zaharretxe honetan?»
Señora denak ditut
beti jira-bueltan,
begiak kinatuaz,
gaztetxo plantetan,
autoestima, behintzat,
darabilkit hegan!

10
Lehenengo pistina ta,
ondoren, bainera;
azkenik, kataplasmak,
pijoen antzera.
Paxa zahar bat eginda
atera kalera,
mina gehi agujetak
izanda, gainera,
burua makurtuta
banoa etxera.

11
Zerbait esatekotan,
hortxe balantzea:
Kanbon ezta erraza
Euskara aitzea.
Poltsikua hustu dut
ta mina antzea,
noizbait izanez gero
minakin trantzea,
hoberena duzue
oyen gelditzea.

Klimaren kilimak

Mikel Iruretagoiena

Doinua: Ijituena

1
Mila bilera, mila goi-kargu
prentsaurreko, mahai-inguru,
klima aldaketa dela medio,
beste horrenbeste aburu,
hondamendia ekiditea
omen daukate helburu,
akordio bat ezin loturik
bukatu baietz seguru.

2
Aurrera egin nahi ta bidean
badira hainbat oztupo,
interes lobby, multinazional
eta abarrekin topo,
euren errentak urritze hori
nonbait ez dute gogoko,
nahiz ta atzetik hondamendia
dabilkigun orpoz orpo.

3
Hitzak potolo, gure inguruko
agintariak harira,
hemengo plana, hango agenda
hurbilduz moda berrira,
gero praktikan ezin emanda
haien hitzari segida,
ta bitartean gure kaltetan
denbora joaten ari da.

4
Baina handiak utzi ditzagun
eta goazen txikira,
guk ere zerbait egin ahal dugu
eman gurgilari bira,
baina autoan goaz lanera
asteburutan mendira,
hara ta hona ezin geldituz
mundua txiki egin da.

5
Maite ditugu auto potente
ta furgoneta hippyak,
oporretara ihes joateko
oso urrutiko tokiak,
aire girotuz epeldutako
ingurune egokiak,
alferrik negar egingo dugu
ez bilatu aitzakiak.

6
Pasatakoan COV26
bareturik izerdiak,
hegazkinetan bueltan etxera
munduko gizon handiak,
guk telebista itzali eta
kendu ditugu nagiak,
ta berehala piztu zaizkigu
Gabonetako argiak.

7
Badakizkigu klima aldaketa
eragozteko lorratzak,
badakizkigu ez egiteak
dakartzan ondoren gaitzak,
ta badakigu behar direla
hartu erabaki latzak,
horretarako prest ote gauden
badauzkat neure zalantzak.

8
Daukagun muga bi gradu t´erdi
gradu t´erdi, bi ta laurden,
helburu bera denon artean
adostu balitz bederen,
egin dezagun gogoeta bat
aitortu dezagun hemen,
etorkizuna irabazteko
zenbat galtzeko prest gauden.

9
Geu Homo Sapiens izenarekin
bataiatuta gaudela,
lotsa pixka bat senti dezaket
esanez gero honela,
horren jakintsu ta horren Sapiens,
azken finean, tentela,
ez ahaztu izena gerontzako
geuk asmatu genuela.

10
Konponbidea gure begiez
ikus daiteke parean,
borondatea bagenu zinez
konpon genezakeenean,
gure planeta, gure etxea
omen daukagu mendean,
bake ederra emango dugu
estingitzen garenean.

Ikus(i)ezinak

Ainhoa Mujika

Doinua: Trumoia ortzi beltzean hoska

1
Gizakiak du bihotz sorgina,
buru argia bezain arina.
Arrotza zaion sufrimendua
oinaze ikusezina. (Bis)
Baina larrutik ordaintzen dugu
gure azalean mina;
gordina, ez da berdina.
Ai (h)ondokoak azaleratzen
ahaleginduko bagina! (Bis)

2
Haizea, sua, lurra ta ura
erauntsi, dar-darzeingar modura,
menderaezin oldartu arren
mendeetako natura, (Bis)
berehalaxe bihurtzen zaigu
erraietako hazkura
erroetako ahanztura,
hondamendiak ez duenean
gure habia helmuga. (Bis)

3
Ze miseria haitiarrena!
Ze lurrikara! Zenbatgarrena?
Telebistako irudiei so
piztu zaigu oroimena. (Bis)
Beste hamabost mila biktima:
zeinen zenbaki gardena
galdu dutenean dena!
Hondakinpean ehortzi dute
ostera itxaropena. (Bis)

4
Orain La Palman jo du aldaba
lurrak sututa. Bizi al da, ba?
Ta atearen beste aldean
zelatan ari da laba. (Bis)
Ihesi doaz! Ihesi nora?
Zer jaso eta zer laga?
Luze egiten da gaba.
Errautsak baino ez daudenean
inor oroituko al da? (Bis)

5
Naturaz landa gizalegea
dugu ta hausten dugu legea.
Beldurgarria izan liteke
pertonaren boterea! (Bis)
Erlijioa, dirua, sona...
arrazoia nork berea,
baina bat azken xedea.
Aurkitu nahian galduko dugu
geureganako fedea. (Bis)

6
Gazako zero beltzean tiro
hotsak entzuten diren aldiro
gatibu bizi diren arimak
itzaltzen dira astiro. (Bis)
Palestinarren lur arreetan
aurten ere ez da giro!
Historiak zenbat jiro!
Sekula hiltzen ez diren gerrak
jaiotzen dira berriro. (Bis)

7
Afganistanen ze tragediak!
Gaina hartzeko azpikeriak
oihal atzean atzeman ditu
emakumeen begiak. (Bis)
Prentsaren bidez heldu zaizkigu
pentsa gabeko (h)egiak,
onartzeko latzegiak.
Mundu erdia nola bizi den
ez daki beste erdiak. (Bis)

8
Zeharo galdu dugu iparra
azkenaldian argi-indarra
bihurtu bada mendebaldeko
kezka iturri bakarra. (Bis)
Afrikan soilik txertatu dute
doi-doi ehuneko hamarra.
Gizadiaren amarra
ez haustekotan, gaur erabaki
beharra dago biharra. (Bis)

Bizitza honek ez du askorik balio

Josu Galdos

Bizitza honek ez du askorik balio
ez banaiz, haurren gisa, uneoro harriduraren sareetan
galtzen,
izate soilaren handitasunak ez banau ase-betetzen eta
zoriona ekinaren ekinez eraiki beharreko zerbait dela
sinesten badut.

Bizitza honek ez du askorik balio
ez badut,
pentsamendurik gabeko nire berri eta
nor naizen jakin gabe, ezagutzak metatu besterik
egiten.

Bizitza honek ez du askorik balio
naizena ahaztu eta etengabe banabil
barruko ezinegon ezkutu edo agerikoa
ahal bezala estaltzen.

Bizitza honek ez du batere balio
ez badut zuhaitza, zomorroa, zerua, izarra
txoria, itsasoa, haizea eta den oro
nire bularrean sentitzen,
ez badut ondokoaren mina edo poza
nire bihotzean bizi.

Ez, bizitza honek ez du batere balio
etengabe pausu bakoitza banabil aztertzen
neurtzen
irudikatzen
eta naizen bizitzaren joan askea beldurrez eten eta
nire erdizkako bizitza lokartua banabil
antzezten.

Bai zaila dela, ordea,
pausua nora doan jakin gabe pausua ematea,
niri buruz ditudan sinismen eta ideia denak baztertu eta
sutan erretzea
barruan dudan guztia, ihes egin gabe, besterik gabe
behatzea
eta, behatzearen behatzeaz barru dena hutsik denean,
naizen leize sakon huts eta izugarriaren aurrean
gogo betez
umiltzea...

...zaila izanen da, bai
bere sinpletasun izugarriagatik zailegia, gainezka dagoen
nire buruarentzat,
baina erdizka edo hilda ez bizitzeko beste modurik
ez dakit nik.

Gainazalean

Maxe Zinkunegi

Ilunabarrean, gainazalean geratzen naiz,
ohearen gainazalean.

Iluntasunaren inbasioaren zain,
egunsentiaren esperoan.

Ohe gaineko izararen loretxoak zenbatzen ditut,
loak ez nazan harrapa.

Eta iluntasunean galtzen direnean ere,
ez dute nire kontaktetik ihes egiten.

Badakit non dauden.

Lorezko harresiak inguratzen nau,
loa ez dadin sartu nigan.

Gauak hain luzeak,
eta nire begiak hain zabal.

Ohe gainean eserita, loreei eusten diet,
loak bilduta, izara artean ez nadin galdu.

Gauaren sakontasun ilunean,
loreak ez dira ikusten,
ametsak besterik ez naiz ari zenbatzen.

Eta inoiz egon ez den ziurtasuna galdu da,
inoiz erori ez diren betazaletan arrakalak sortuz.

Harresia erori egin da,
ohearen aurrean biluzik utzi nauelarik.

Nire gorputz
pitzadurek zulatuari
ezin diot eutsi.

Izara artean amildu naiz,
loa badator ni irenstera.

Eta loa iritsi denean,
aurkitu naiz.